


DURANDEGI BASERRIA
C MAILA

PILLOTEGI BIDEA 57



Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Baserriaren berreraikuntza honek haren irudiari zehatz jarraitzen dio, zurezko egitura eta arotzeria berriekin ere. Harlangaitz horma agerian dago, emokadurarik gabe, eta silarriak baoen azpaduretan agertzen dira. Erdisoto oin batez, oin nagusiaz eta bi isurkiko estalkipeko oinaz osatzen da.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: ez.
 - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ezkutua; harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: eraikinaren egungo bolumena mantenduko da eta jasodurak ez dira baimenduko.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.